



**FAMILIENTZAKO
BALIABIDEEN
GIDA**

**GUÍA DE
RECURSOS PARA
LAS FAMILIAS**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Aurkezpena:

Zer aurki dezakezu gida honetan?

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak zure esku, eta familien esku jartzen du, **“Familientzako baliabideen gida”** euskal administrazio publikoek Euskadin eskaintzen dituzten **dirulaguntzen, zerbitzuen, programen eta baliabide publiko** interesgarriak ezagutzen eta aurkitzen lagunduko duen informazioa emateko. Gida honen xedea da familia-mota eta behar zehatz bakoitzarentzat zer baliabide dauden jakiteko tresna erabilgarria izatea, eta zerbitzu hori eskaintzen duen eragilearengana hurbiltzea, zerbitzuen inguruan galdetzeko edo eskatzeko.

Eusko Jaurlaritzako sailek eta **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek** eskaintzen dituzten baliabideak aurkitu ahal izango dituzu. Halaber, **udalek** eskaintzen dituzten batzuk ere aurkituko dituzu, zehazki, zabalduen dauden baliabideak.

Gida egiteko egun dauden askotariko familia-ereduak hartu dira kontuan: seme-alabak dituzten eta ez dituzten familiak, guraso bakarreko familiak, aurreko harreman batetik jaiotako seme-alabak dituzten bikotekideek osatutako familiak, familia ugariak, homosexualek osatutako familiak, familia adoptiboak eta abar daude.

Halaber, oso kontuan hartu da familiek errealitate oso desberdinak aurkeztu ditzaketela osatzen dituzten pertsonen arabera eta kideen bizi-baldintzen arabera. Hala, etorkinek osatutako familiak, adineko pertsonak dauden familiak mendekotasuna izan ala ez, gatazka-egoera kritikoak dituzten familiak, desgaitasuna duen pertsonaren bat duten familiak, seme-alaba gazteak dituzten familiak eta abar daude.

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

Euskal administrazio publikoa 3 mailatan antolatzen da. Bakoitzak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu bere eskumenen arabera. Gida honetan agertzen diren baliabideetako bakoitzean ikus dezakezu zein erakundeak eskaintzen edo hornitzen duen.

FORU ALDUNDIAK	EUSKO JAURLARITZA	UDALAK
Arabako Foru Aldundia  Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	 ERAKUNDEA EZAGUTU: Ezagutu gida honetan jasotzen diren baliabideak, zerbitzuak edo programak osatzen dituzten eta eskaintzen dituzten sailak, organismoak eta erakundeak.	En la CAE hay un total de 252 municipios: • 51 municipios en Araba • 113 municipios en Bizkaia • 88 municipios en Gipuzkoa
Bizkaiko Foru Aldundia  Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	JARRI HARREMANETAN INSTITUZIOAREKIN  Zuzenean: Herritarrentzako arreta	Zure udaletxea ezagutzeko eta harekin harremanetan jartzeko, kontsultatu zerrenda hau:  UDALEN ZERRENDA
Gipuzkoako Foru Aldundia  Herritarrentzako Arreta Zerbitzua		

Aurkezpena:

Zer aurki dezakezu gida honetan?

Dibertsitate horren aitortzatik abiatuta, eta bakoitzaren beharrak oso desberdinak izan daitezkeela aintzat hartuta, **normalean familiaren kontzeptu tradizionalarekin lotzen diren baliabideez gain beste batzuk ere barne hartuko dituen Gidaren** aldeko apustua egin dugu.

Familiaren kontzeptu zabal horrekin koherentzia eta behar duzuna azkar aurkitu ahal izateko, **Gida 10 atal handitan dago banatuta**. Familien osaeraren eta dituzten ezaugarrien edo baldintzen arabera BEHAR espezifiko jakin batzuekin lotu daitezkeen AGERTOKIAK hartzen dituzte kontuan atalek:

1. [HAURRAK EDO NERABEAK DAUDEN FAMILIAK](#)
2. [GAZTEAK DAUDEN FAMILIAK](#)
3. [ADINEKOAK DAUDEN FAMILIAK](#)
4. [DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK DAUDEN FAMILIAK](#)
5. [BURUKO OSASUN ARAZOAK ETA/EDO MENDEKOTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK DAUDEN FAMILIAK](#)
6. [ETORKINAK DAUDEN FAMILIAK](#)
7. [INDARKERIA, GATAZKA EDO BABESGABETASUN ARRISKU EGOERAK DITUZTEN FAMILIAK](#)
8. [ZAURGARRITASUN EKONOMIKO BEREZIKO ETA/EDO ENPLEGUAREKIN LOTUTAKO EGOERAK DITUZTEN FAMILIAK](#)
9. [ETXEBIZITZAREKIN LOTUTAKO BEHARRAK DITUZTEN FAMILIAK](#)
10. [BESTE BALIABIDE INTERESGARRI BATZUK](#)

Atal bakoitzaren hasieran, atala labur aurkezten duen eta barruan dauden baliabideak antolatze modua azaltzen duen sarrera aurkituko duzu. Baliabideak antolatze modua desberdina da atal bakoitzean, kasu bakoitzerako eskuragarri dauden baliabideen arabera egokitu baita. Besteak beste, hauek aurki ditzakezu: laguntza ekonomikok; mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako zentroak; gazteentzako aisialdirako eta denbora liberako zerbitzuak eta programak; ondorengoengatik dauden zerga-kenkariak; ikasteko bekak; prestakuntza-eskaintzen katalogoa, etab.

Hamargarren eta azken atalak, aurrekoak ez bezala, familiei zuzenean zuzenduta ez dauden arren, erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak jasotzen ditu.

Baliabide bakoitza atal bakarrari dago esleitura, askorekin harremana izan dezakeen arren. Baliabidearen xedearekin eta hartzailarekin lotuen dagoen atala aukeratu da.



Gidaren baliabideetan aldaketak proposatzeko **interesa duten administrazio publikoek** horretarako sortutako posta elektronikoaren bidez egin dezakete **familiagida@euskadi.eus**

Helbide elektroniko hau gida begiratzen duen edonork antzeman dezakeen edozein erroreren berri emateko ere erabil daiteke.

Gida hau nola erabili?

Gidaren aurkibideak 10 atal handi ditu, eta informazioa antolatzeko kontuan hartzen ditu familiek etaosatzen duten pertsonen izan ditzaketen behar espezifikoekin lotu daitezkeen agertokiak. Agertoki horietakoren batekin identifikatuta sentitzen bazara, has zaitez bertatik. Bilatzen ari zarena aurkitzeko modurik errazena izango da.

Beste ibilbide alternatibo batzuk eskaini, eta beste logika batzuetatik abiatuta baliabideak aurkitzeko asmoz, modu honetara bila ditzakezu:

- Arloaren arabera.
- Familia-motaren arabera.
- Tipologia edo izaeraren arabera.

Bilatzen ari zarena aurkitu ahal izateko, nahikoa izango da hurrengo aukeretako bat hautatzea, eta baliabideen zerrenda duen taulara eramango zaitu. Bertan, baliabidea aukeratu beharko duzu interesatzen zaizun zerrendatik eta hautatutako baliabideari buruzko informazioa dagoen gidaren lekura eramango zaitu:

BALIABIDEAK ARLOAREN ARABERA

- [Kontziliazioaren arloko baliabideak](#)
- [Hezkuntza arloko baliabideak](#)
- [Enpleguaren eta ekintzailatzaren arloko baliabideak](#)
- [Zerga-arloko baliabideak](#)
- [Justiziaren arloko baliabideak](#)
- [Aisialdiaren eta astialdiaren esparruko baliabideak](#)
- [Osasun-arloko baliabideak](#)
- [Gizarte Zerbitzuen arloko baliabideak](#)
- [Etxebizitzaren arloko baliabideak](#)
- [Beste eremu batzuen esparruko baliabideak](#)

BALIABIDEAK FAMILIA MOTAREN ARABERA

- [Familia adoptatzaile edo harreragileentzako baliabideak](#)
- [Seme-alabak dituzten familientzako baliabideak](#)
- [Mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonak dauden familientzako baliabideak](#)
- [Migratzaileak dauden familientzako baliabideak](#)
- [Familia ugariarentzako edo guraso bakarreko familientzako baliabideak](#)

BALIABIDEAK TIPOLOGIA EDO IZAERAREN ARABERA

- [Dirulaguntzak](#)
- [Onura fiskalak](#)
- [Giden edo mapen katalogoak](#)
- [Zentroak edo ekipamenduak](#)
- [Ekonomikoak ez diren bestelako laguntzak](#)
- [Baimenak](#)
- [Dokumentazio interesgarria duten web-atariak](#)
- [Zerbitzuak eta programak](#)

1. HAURRAK EDO NERABEAK DAUDEN FAMILIAK	5
1.1. Kontziliaiorako eta hazkuntzan laguntzeko dirulaguntzak, baimenak eta beste baliabide batzuk.	6
1.2. Ikasteko dirulaguntzak eta bekak	9
1.3. Ikastetxeei buruzko informazioa	12
1.4. Aisialdiko eta denbora libreko zerbitzuak eta programak	15
1.5. Osasun arloko eta arlo soziosanitarioko zerbitzuak eta programak	17
1.6. Adopzio-familiantzako eta harrera-familiantzako dirulaguntzak, zerbitzuak eta programa espezifikoak.	20
1.7. Beste baliabide batzuk	22
2. GAZTEAK DAUDEN FAMILIAK	24
2.1. Ikasteko dirulaguntzak eta bekak	25
2.2. Hezkuntza-sistema, zentroak eta beste prestakuntza batzuk	28
2.3. Esperientzia esanguratsuak bizitzeko laguntzak, zerbitzuak eta programak	30
2.4. Lana aurkitzeko aukera hobetzeko dirulaguntzak, zerbitzuak eta programak	33
2.5. Beste baliabide batzuk	35
3. ADINEKOAK DAUDEN FAMILIAK	37
3.1. Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eta zaintzaileentzako dirulaguntzak, baimenak eta pentsioak	38
3.2. Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eta zaintzaileentzako dirulaguntzak eta programak	41
3.3. Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako zentroak	45
3.4. Autonomia eta zahartze aktiboa sustatzeko programak eta zerbitzuak	47
4. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK DAUDEN FAMILIAK	49
4.1. Dirulaguntzak y deducciones a personas con discapacidad y para las personas cuidadoras	50
4.2. Zerbitzuak eta programak para personas con discapacidad y para las personas cuidadoras	53
4.3. Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroak	56
4.4. Beste baliabide batzuk	58
5. BURUKO OSASUN ARAZOAK ETA/EDO MENDEKOTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK DAUDEN FAMILIAK	59
5.1. Buruko osasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentroak	60
5.2. Zerbitzuak eta programak para personas con problemas de adicciones	61
6. FAMILIAS EN LAS QUE HAY PERSONAS MIGRADAS	62
6.1. Etorkinentzako informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak	63
6.2. Beste baliabide batzuk	66

7. INDARKERIA, GATAZKA EDO BABESGABETASUN ARRISKU EGOERAK DITUZTEN FAMILIAK	67
7.1. Dirulaguntzak eta pentsioak	68
7.2. Informazio- eta orientazio-zerbitzuak	69
7.3. Familia-gatazketarako arreta-zerbitzuak eta -programak	71
7.4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arretarako zerbitzuak eta programak	73
7.5. Babesgabetasun-egoeran edo arriskuan dauden haur eta nerabeekin eta haien familiekin esku hartzeko zentroak, zerbitzuak eta programak	75
7.6. Beste baliabide batzuk	76
8. ZAURGARRITASUN EKONOMIKOAREN ETA/EDO LANAREN EGOERA BEREZIAN DAUDEN FAMILIAK	77
8.1. Dirulaguntzak eta beste prestazio ekonomiko batzuk	78
8.2. Etorkinentzako informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak	80
8.3. Gizarteratzeko beharrei erantzuteko zentroak	81
8.4. Gizarteratzera bideratutako zerbitzuak eta programak	82
9. ETXEBIZITZAREKIN LOTUTAKO BEHARRAK DITUZTEN FAMILIAK	83
9.1. Etxebizitzaren ordainketarekin lotutako dirulaguntzak	84
9.2. Etxebizitzaren erreformarekin edo egokitzapenarekin lotutako dirulaguntzak	85
9.3. Alokairuko etxebizitza edo salmentakoa eskuratzeko zerbitzuak eta programak	86
9.4. Beste baliabide batzuk	88
10. BESTE BALIABIDE BATZUK	90
10.1. Kultura, aisialdia eta denbora libre	91
10.2. Kirola	95
10.3. Euskara eta beste hizkuntza batzuk ikastea	97
10.4. Enplegua eta ekintzailatza	100
10.5. Ingurumena	102
10.6. Osasuna	104
10.7. Beste baliabide batzuk	108

1. ERANSKINA. GIDAREN BESTE ERABILERA BATERAKO IBILBIDEAK	116
2. ERANSKINA. ESTATUKO LAGUNTZAK. INFORMAZIOA	148
3. ERANSKINA. UDAL BALIABIDEETAKO KONTAKTUEN ZERRENDA	152

1

HAURRAK EDO NERABEAK DAUDEN FAMILIAK

Atal honetan, adingabeko seme-alabak baldin badituzu edo haurrak edo nerabeak dauden familia bateko kide bazara, interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuei, programei, ekipamenduei edo dirulaguntzei buruzko informazioa aurkituko duzu.

Galdera hauetakoren bat baduzu, atal hau interesgarria izan daiteke:

Kontziliaziorako laguntza ekonomikoak daude?
Nola lor ditzaket eskolan dauden nire seme-alabentzako bekak?
Zaintzarako lan-baimenak daude?
Nire etxetik hurbilen dauden ikastetxeak nola bila ditzaket?
Non aurki dezaket oporretarako aisialdi-programen eskaintza?
Nola irakats diezazkiet nire seme-alabei ohitura osasungarriak?
Non kontsulta dezaket nola adoptatu edo harrerara hartu dezakedan haur bat?



1.1.

Kontziliaziorako eta hazkuntzan laguntzeko dirulaguntzak, baimenak eta beste baliabide batzuk



1.2.

Ikasteko dirulaguntzak eta bekak



1.3.

Ikastetxeei buruzko informazioa



1.4.

Aisialdiko eta denbora libreko zerbitzuak eta programak



1.5.

Osasun arloko eta arlo soziosanitarioko prebentzio-zerbitzuak eta programak



1.6.

Adopzio-familientzako eta harrera-familientzako dirulaguntza, zerbitzu eta programa espezifikoak



1.7.

Beste baliabide batzuk



1.1. KONTZILIAZIOAKO ETA HAZKUNTZAN LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZAK, BAIMENAK ETA BESTE BALIABIDE BATZUK.

- Urtebetetik beherako seme-alabaren jaiotzagatik eta zaintzagatik lan-eszedentzia dauden guraso bakarreko familientzako laguntza ekonomikoa
- Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa eta/edo lan-eszedentzia duten pertsonen familia- eta lan-bizitza kontziliatzeko laguntza ekonomikoa
- 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeke dirulaguntza
- Seme-alaben hazkunderako eta mantenuko hileroko laguntza ekonomikoa
- Seme-alaben elikagaien urteko abonuen kenkariak
- Kontzilia: kontziliazioari buruzko online informazio-zerbitzua. Doako kontsultak

Urtebetetik beherako seme-alabaren jaiotzagatik eta zaintzagatik lan-eszedentzia dauden guraso bakarreko familientzako laguntza ekonomikoa

Zer da?

Bizitzako lehen urtean haurra hazteko eszedentzia-egoeran dauden guraso bakarreko familientzako laguntza ekonomikoa, ardurapean bi pertsona heldu dituzten familiekin parekatzen laguntzeko.

Nori zuzendua dago?

Haurren lehen urtean zaintzarako eszedentzia hartu duten guraso bakarreko familiei (heldu bakarren kargu).

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Saila
Familia eta Haurren Zuzendaritza.

Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa eta/edo lan-eszedentzia duten pertsonen familia- eta lan-bizitza kontziliatzeko laguntza ekonomikoa

Zer da?

Hiru urtetik beherako seme-alaben zaintzarako eszedentzia hartu duten edo hamabi urtetik beherako seme-alabak zaintzeko gutxienez heren bateko lanaldi-murrizketa duten langileentzako laguntza ekonomikoa.

Nori zuzendua dago?

Beren zaintza edo tutoretzapeko seme-alaba zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duten pertsonak.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Saila
Familia eta Haurren Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko dirulaguntza

Zer da?

14 urtetik beherako seme-alabak etxean zaintzeko pertsona bat kontratatzeko kostuei aurre egiteko laguntza ekonomikoa. Familien lan-bizitzaren eta lanaren arteko kontziliazioa sustatzea da helburua.

Nori zuzendua dago?

14 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta gutxienez 59 egun naturaletarako etxeko langile bat kontratatu duten pertsonak.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Saila
Familia eta Haurren Zuzendaritza.

Seme-alaben hazkunderako eta mantenurako hileroko laguntza ekonomikoa

Zer da?

200 euroko dirulaguntza hilean 0 eta 3 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. Horrez gain, hilean 100 euroko laguntza izango da haurrak 7 urte bete arte, hirugarren edo hurrengo aurren kasuan soilik. Seme-alabak % 33 edo gehiagoko desgaiatasuna baldin badu aitortuta edo mendekotasun-egoeran badago, dirulaguntzak bikoiztu egingo dira. Askotariko erditze edo adopzio kasuetarako, ordainketa bakarreko 2.000 euroko gutxieneko dirulaguntza dago.

Nori zuzendua dago?

0 eta 3 urteko seme-alabak ardurapean dituzten pertsonak zuzenduta.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Saila
Familia eta Haurren Zuzendaritza.

Seme-alaben elikagaien urteko abonuen kenkariak

Zer da?

Seme-alaben elikadura-beharrei erantzuteko ordaindutako kopuruen kenkaria, epailearen erabakiz, seme-alaben mantenurako urtean ordainketa bat egiten ari diren pertsonen kasuan. Kenkari hori urteko PFEZaren bidez aplikatzen da errenta-aitorpenean.

Nori zuzendua dago?

Epailearen erabakiz haien seme-alaben mantenurako urtean ordainketa bat egiten ari diren pertsonak.

Info + Araba | Bizkaia | Gipuzkoa

Baliabidearen jarduketa arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Arabako Foru Aldundia, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Finantzen eta Aurrekontuen Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza Saila
Ogasun Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza Saila
Zerga eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusia.



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

Herriarrentzako Arreta Zerbitzua	
Araba	945 181 818
Bizkaia	944 068 000
Gipuzkoa	943 112 111



Kontzilia: kontziliazioari buruzko online informazio-zerbitzua. Doako kontsultak

Zer da?

Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazioa hobetzeko eskuragarri dauden ekimenei eta neurriei buruz informatzeko zerbitzua.

Nori zuzendua dago?

Familiei oro har.

Info +

Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Saila
Familia eta Haurren Zuzendaritza.

Joan zaitez 2. ERANSKINERA estatuko dirulaguntza hauek kontsultatzeko:

- [Edoskitze-aldian dauden seme-alabak zaintzeko ordaindutako baimena.](#)
- [Haur jaioberrien zaintzagarik eta jaiotzagarik ematen den ordaindutako baimena.](#)



Harremanetarako datuak

kontzilia@euskadi.eus | [Zuzenean](#) (012) |



IKASTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK ETA BEKAK

- Unibertsitatekoak ez diren mailetan ikasleak eskolatzeko laguntza ekonomikoa
- Unibertsitateko ikasketak eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko laguntza ekonomikoa
- Ikasleak lekualdatzeko gastuentzako laguntza ekonomikoak Araban
- Ikasteko kuotak ordaintzen laguntzeko bekak
- Jangelako bekak
- Eskola-materialarentzako bekak
- Garraio-bekak

Unibertsitatekoak ez diren mailetan ikasleak eskolatzeko laguntza ekonomikoa

Zer da?

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta musika eta dantzako Oinarrizko Hezkuntzan eskolatzeko (ikasketak) ordaintzeko beka eta laguntza ekonomikoa. Online tramitatu daiteke Hezkuntza Sailean edo aurrez aurre beka eskatzen duen haurrak ikasten duen zentroan.

Nori zuzendua dago?

Ezarritako errentaren mailak gainditzen ez dituzten eta eskakizun akademikoak betetzen dituzten unibertsitatekoak ez diren ikasleei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.

Unibertsitateko ikasketak eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko laguntza ekonomikoa

Zer da?

Ikasturte horretan unibertsitate-ikasketak edo altuagoak egingo dituzten ikasleentzako beka eta laguntza ekonomikoa, prestakuntza amaitzen laguntzeko.

Nori zuzendua dago?

Ezarritako errentaren mailak gainditzen ez dituzten eta eskakizun akademiko batzuk betetzen dituzten unibertsitateko gradu edo master ofizialeko ikasleei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Unibertsitateko Politika eta Koordinazio Zuzendaritza.

Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](mailto:uni.ikasleak@euskadi.eus) (012) |

Harremanetarako datuak

uni.ikasleak@euskadi.eus

945 016 838



Ikasleak lekualdatzeko gastuentzako laguntza ekonomikoak Araban

Zer da?

Unibertsitateko ikasketak, batxilergoa eta erdi edo goi mailako prestakuntza-zikloak egiteko ikaslea bizi den udalerritik beste udalerrri batera joateko gastua konpentsatzeko laguntza ekonomikoa.

Nori zuzendua dago?

Bizi diren udalerritik ikastera beste udalerrri batera joan behar duten Arabako ikasleei.

Info + [Hemen](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Araba

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Arabako Foru Aldundia, Kultura eta Kirol Saila
Gazteriaren Foru Institutua

Ikasteko kuotak ordaintzen laguntzeko bekak

Zer da?

Eskola-kuotei aurre egiteko laguntza ekonomikoa. Ikastetxearen bidez edo online izapidetu daitezke.

Nori zuzendua dago?

Eskolatzeko garaian dauden seme-alabak dituzten familiei.

Info + [Hemen](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.

Jangelako bekak

Zer da?

Eskola-jantokiko gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoa. Online izapidetu daitezke.

Nori zuzendua dago?

Eskola-adineko seme-alabak dituzten familiak, eskola-jantokia erabiltzen dutenak.

Info + [Hemen](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua
[Araba](#) 945 181 818



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Eskola-materialarentzako bekak

Zer da?

Eskola-materialaren gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoa. Ikastetxearen bidez edo online izapidetu daitezke.

Nori zuzendua dago?

Eskolatze-garaian dauden seme-alabak dituzten familiei.

Info +
Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jauriaritza, Hezkuntza Saila
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.

Garraio-bekak

Zer da?

Online tramitatu daitekeen eskolako garraioaren gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoa.

Nori zuzendua dago?

Eskola-adineko seme-alabak dituzten familiak, eskola-garraioa erabiltzen dutenak.

Info +
Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jauriaritza, Hezkuntza Saila
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



1.3. IKASTETXEEI BURUZKO INFORMAZIOA

- Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarrirako Lurralde Zentroak (OET-H)
- Ikastetxeetan izena emateko informazioa
- Haurreskolak: Haurtzaindegien sarea
- Hezkuntza-sistemari buruzko familientzako gida
- Musikene: Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia
- Euskadin eskaintzen den ikaskuntzarako sarbide-ataria
- Dibertsitaterako eta hezkuntza inklusiborako sarbide-ataria

Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko- Hezigarrirako Lurralde Zentroak (OET-H)

Zer da?

Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarrirako Lurralde Zentroen (OET-H) helburua da medikuaren aginduz normalean ikastetxera joan ezin diren ikasleei laguntza hezitzailea eta terapeutikoa eskaintzea, izan osasun-zentro batean ospitaleratuta dagoelako, etxean ospitaleratuta dagoelako edo programa terapeutiko-hezitzaile batean sartuta dagoelako.

Nori zuzendua dago?

Medikuaren aginduz normalean ikastetxera joan ezin diren ikasleei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.

Ikastetxeetan izena emateko informazioa

Zer da?

Euskadiko sare publikoko ikastetxe batean hurrei izen ematea.

Nori zuzendua dago?

Eskolatzeko garaian dauden seme-alabak dituzten familiei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Ikastetxeen eta Plangintzaren Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Haurreskolak: Haurtzaindegien sarea

Zer da?

Haurreskolak Partzuergoko haurtzaindegien sareari buruzko askotariko informazioa duen web-ataria. Bertan, 0-3 urte bitarteko haurren izen-ematea egin daiteke, haurreskolen funtzionamendua ezagutu, zentroak bilatu, azalpen-bideoak ikusi, etab.

Nori zuzendua dago?

0 eta 3 urte arteko seme-alaben familiei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Ikastetxeen eta Plangintzaren Zuzendaritza.

Hezkuntza-sistemari buruzko familientzako gida

Zer da?

Hezkuntza-sistemari buruzko gida, hainbat hizkuntzatan, hezkuntza nola antolatuta dagoen, zer ezaugarri dituen eta etapa bakoitzaren mugarririk garrantzitsuenak zein diren, trantsizio-uneak (etapa batetik bestera aldatzea), erreferentziazko profesionalak eta abar azaltzeko, ahalik eta laburren.

Nori zuzendua dago?

Eskolatzeko garaian dauden seme-alabak dituzten familiei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Ikastetxeen eta Plangintzaren Zuzendaritza.

Musikene: Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia

Zer da?

Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegiak Musikaren Goi Mailako Ikaskuntzak eskaintzen ditu, interpretazioaren, konposizioaren, zuzendaritzaren eta pedagogiaren arloetan kualifikazio profesionala bermatzeko.

Nori zuzendua dago?

Familiei oro har.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Musikene.



Harremanetarako datuak

haurreskolak@haurreskolak.eus
| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

info@musikene.eus 943 023 763



Euskadin eskaintzen den ikaskuntzarako sarbide-ataria

Zer da?

Unibertsitatekoak ez diren ikastetxeetan matrikulatzeko eta onartua izateko prozesuei buruzko informazioa eta unibertsitatekoak ez diren hezkuntza-agiri ofizialak eskuratzeko informazioa jasotzen duen web-ataria.

Nori zuzendua dago?

Familiei oro har.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Ikastetxeen eta Plangintzaren Zuzendaritza.

Dibertsitaterako eta hezkuntza inklusiborako sarbide-ataria

Zer da?

Hezkuntza inklusiboari, dibertsitatearen arretari, eta haur eta nerabeen hezkuntza behar bereziei buruzko askotariko informazioa duen web-ataria.

Nori zuzendua dago?

Beren ezaugarriengatik eta/edo beharrianengatik eskola-egokitzapenen bat behar duten eta hezkuntza-sisteman seme-alabak dituzten familiak.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



1.4. AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

- Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekipamenduak eta zerbitzuak (ludoteka, hargunea, gaztelekua, udalekuak...)
- Arabako haur eta nerabeentzako aisialdiko eta denbora libreko jarduerak
- Gipuzkoako Gaztelekuen sarea
- Gipuzkoako Haurtxoaren sarea
- Udalekuak: udako udalekuen programa

Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekipamenduak eta zerbitzuak (ludoteka, hargunea, gaztelekua, udalekuak...)

Zer da?

Espazio soziohezitzaileak, hau da, haur, nerabe eta gazteen eskura dauden lekuak, balioak ingurune ludiko eta gozamenekoan lantzeko eta komunikazioa eta elkarriketa sustatzeko. Sormena eta kultura, herritartasun aktiboa eta parte-hartzea, errespetua, autonomia pertsonala, giza harremanak eta abar sustatzen dira.

Halaber, beren beharretara egokitutako informazioa eskaintzen da, baita orientazioa eta laguntza ere profesionalen bitartez.

Zerbitzu honen funtsezko ezaugarria da "berdinen arteko topaketara" bideratutako aisialdi-espazioa eskaintzea, beren adineko eta udalerriko beste pertsona batzuekin batera. Hainbat baliabide daude adin desberdinetara bideratuta: Gazteleku, Gaztegunea, Gaztelokala, Gaztetxoko, gazteen etxea, gazteen kluba, gazteen zentroa...

Nori zuzendua dago?

Adin guztietako haur eta nerabeei.

Baliabidearen jarduketara arloa:

Udalekoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Udalak:** jarri harremanetan zure udalarekin edo klikatu [HEMEN](#) zerbitzu edo programa mota hori eskaintzen duen kontsultatzeko.

Harremanetarako datuak

Aisialdiko ekipamendu eta zerbitzuen zerrenda kontsultatu

Arabako haur eta nerabeentzako aisialdiko eta denbora libreko jarduerak

Zer da?

Haur eta nerabeentzako jarduerak eskaintzen dituen programa, elkarbizitza sustatzeko; berdinen arteko esperientziak trukatzeko; ezagutzeko; taldean lan egiteko; fisikoki eta emozionalki garatzeko; eta bakearen, berdintasunaren, elkartasunaren, ekologiaren eta/edo beste kultura eta izateko moduengandako errespetua bereganatzeko.

Nori zuzendua dago?

7 eta 17 urte bitarteko haur edo nerabeak dituzten Arabako familiei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketara arloa:

Araba

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- Arabako Foru Aldundia, Kultura eta Kirol Saila
Gazteriaren Foru Institutua.

Harremanetarako datuak

ifj@araba.eus 944 181 988
Herritarrentzako Arreta Zerbitzua

Araba 945 181 818



Gipuzkoako Gaztelekuen sarea

Zer da?

“Gaztelekuei” buruzko informazioa eskaintzen duen web-zerbitzua. 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat pentsatutako espazioak dira, dibertitzeko, jendea ezagutzeko, hainbat jarduera egiteko eta ideiak eta proiektuak abian jartzeko.

Nori zuzendua dago?

12 eta 17 urte bitarteko nerabeak dituzten familiei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Saila**
Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia.

Gipuzkoako Haurtxokoen Sarea

Zer da?

“Haurtxokoei” buruzko informazioa eskaintzen duen web-zerbitzua. 4 eta 11 urte bitarteko gazteentzat pentsatutako espazioak dira, dibertitzeko, jendea ezagutzeko eta hainbat jarduera egiteko.

Nori zuzendua dago?

4 eta 11 urte bitarteko Seme-alabak dituzten familiei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Saila**
Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia.

Udalekuak: udako udalekuen programa

Zer da?

Haur eta nerabeentzako udalekuak, jolaserako, dibertitzeko eta elkarbizitzarako espazioa eskaintzeko, gozatu eta autonomia pertsonala indartu ahal izateko. Parte-hartzaile bakoitzak bere erroldako lurralde historikoari dagokion Foru Aldundian eman beharko du izena.

Nori zuzendua dago?

7 eta 13 urte bitarteko haur edo nerabeak dituzten familiei.

Info + Araba | Bizkaia | Gipuzkoa

Baliabidearen jarduketa arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Arabako Foru Aldundia, Kultura eta Kirol Saila**
Gazteriaren Foru Institutua.
- **Bizkaiko Foru Aldundia, Euskara, Kultura eta Kirol Saila**
Kultura Zuzendaritza.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Saila**
Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia.



Harremanetarako datuak

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua

[Gipuzkoa](#) 943 112 111



Harremanetarako datuak

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua

[Gipuzkoa](#) 943 112 111



Harremanetarako

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua

[Araba](#) 945 181 818
[Bizkaia](#) 944 068 000
[Gipuzkoa](#) 943 112 111



1.5. OSASUN ARLOKO ETA ARLO SOZIOSANITARIOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

- **Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialerako zerbitzua**
- **“Zaindu” mugikorrerako aplikazioa**
- **Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI)**
- **Osakidetzako txertaketa-egutegia**
- **Eskolatik kanpo elikadura osasuntsua izateko gomendioen gida**
- **Haurdunaldiari eta jaiotzaren osteko lehen egunei buruzko informazioaren ataria**

Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialerako zerbitzua

Zer da?

Garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren behar iragankorrei edo iraunkorrei lehenbailehen eta modu integralean erantzutera bideratutako balorazio-, estimulazio- eta errehabilitazio-programek osatutako zerbitzua da.

Nori zuzendua dago?

Garapenaren nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko haurrei.

Info +

Araba | Bizkaia | Gipuzkoa

Baliabidearen jarduketa arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Arabako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila**
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- **Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila**
Autonomia Pertsonalaren Sustapenaren Zuzendaritza.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politika Saila**
Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.

“Zaindu” mugikorrerako aplikazioa

Zer da?

Alkoholaren kontsumoaren efektuei buruzko informazioa ematen duen, adingabe batek edo haurdun dagoen emakume batek ez edateko arrazoiak azaltzen dituen eta edari alkoholadunen kontsumoari buruzko mito faltsuak baztertzen dituen mugikorreko aplikazioa da. Horrez gain, informazio interesgarria eskaintzen du gazteentzat, hala nola garraio publikoaren ordutegiak edo laguntza behar izanez gero dauden baliabideak.

Nori zuzendua dago?

Familiei oro har.

Info +

Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila**
Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	
<u>Araba</u>	945 181 818
<u>Bizkaia</u>	944 068 000
<u>Gipuzkoa</u>	943 112 111

*Informazio gehiagorako, jar zaitez zure oinarritzko gizarte-zerbitzuarekin harremanetan.



Harremanetarako datuak

| Zuzenean (012) |



Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI)

Zer da?

7 eta 15 urte bitarteko haur guztiei hortzetako doako arreta bermatzen dien programa da, aho-hortzetako osasuna bermatzeko eta bizi osoan zehar osasuntsu egon daitezen zaintza-ohitura egokiak garatzeko.

Nori zuzendua dago?

7 eta 15 urte arteko seme-alabak dituzten familiak.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketara arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Eusko Jaurlaritzak, Osasun Saila**
Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.

Osakidetzako txertaketa-egutegia

Zer da?

Haurren txertaketa-egutegia, helduena eta txertatu gabe dauden pertsonena ageri den web-ataria.

Nori zuzendua dago?

Familiei oro har.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketara arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Eusko Jaurlaritzak, Osasun Saila**
Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.

Eskolatik kanpo elikadura osasuntsua izateko gomendioen gida

Zer da?

Ikastetxetik kanpo egiten diren gainerako otorduetarako dieta-gomendio orokor eta espezifiko osagarrien gida.

Nori zuzendua dago?

Eskolatzeko garaian dauden seme-alabak dituzten familiei.

Info + Hemen

Baliabidearen jarduketara arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Eusko Jaurlaritzak, Osasun Saila**
Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.

Harremanetarako datuak		
Araba	padi.araba@osakidetza.eus	945 016 651
Bizkaia	padi.bizkaia@osakidetza.eus	944 033 609
Gipuzkoa	padi.gipuzkoa@osakidetza.eus	943 006 465

Harremanetarako datuak	
Zuzenean (012)	

Harremanetarako datuak	
Zuzenean (012)	



Haurdunaldiari eta jaiotzaren osteko lehen egunei buruzko informazioaren ataria

Zer da?

Haurdunaldiaren, erditzearen, erditze-ostearen, jaiotzaren osteko lehen egunen edo edoskitze-aroaren gaineko informazioa jasotzen den webgunea.

Nori zuzendua dago?

Haurdunaldiaren eta jaiotzaren osteko lehen egunei buruzko kezka duten pertsonen.

Info +

Hemen

Baliabidearen jarduketaren arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

• Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila

Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

| [Zuzenean](#) (012) |



1.6. ADOPZIO FAMILIENTZAKO ETA HARRERA FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZA, ZERBITZU ETA PROGRAMA ESPEZIFIKOAK

- **Familia-harrera**
- **Familia-harrerarako laguntza ekonomikoa**
- **Nazioarteko adopzio-programa**
- **Adopzioetarako Laguntza Zerbitzua**
- **Ukrainatik etorritako adingabeak harreraren hartzeko gida**

Familia-harrera

Zer da?

Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden haurren harrera-familiak izateko eskaintzen diren familientzako informazio- eta laguntza-zerbitzua, hainbat arrazoi direla eta haur horien familiak ezin direlako haien kargu egin.

Nori zuzendua dago?

Harrera-familiei edo harrera-familia ezagutu nahi duten interesdunei.

Info +

[Araba](#) | [Bizkaia](#) | [Gipuzkoa](#)

Baliabidearen jarduketara arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Arabako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila**
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- **Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila**
Administrazioaren eta Sustapen Sozialaren Zuzendaritza..
- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politika Saila**
Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.

Harremanetarako datuak	
Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	
Araba	945 181 818
Bizkaia	944 068 000
Gipuzkoa	943 112 111

**Informazio gehiagorako, jar zaitez zure oinarritzko gizarte-zerbitzuarekin harremanetan.*

Familia-harrerarako laguntza ekonomikoa

Zer da?

Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden haurrak beren kargu dituzten harrera-familientzako laguntza ekonomikoa, haien familiak ezin direlako haurren zaintzaren kargu egin. Dirulaguntza horrek mantenuaren ohiko gastuekin eta adingabea zaintzeko egon daitezkeen balizko aparteko gastuekin laguntzen du, hala nola eskola-errefortzua, ortodontzia, etab.

Nori zuzendua dago?

Harrera-familiei.

Info +

[Araba](#) | [Bizkaia](#) | [Gipuzkoa](#)

Baliabidearen jarduketara arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Arabako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila**
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- **Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila**
Administrazioaren eta Sustapen Sozialaren Zuzendaritza..
- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politika Saila**
Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.

Harremanetarako	
Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	
Araba	945 181 818
Bizkaia	944 068 000
Gipuzkoa	943 112 111

**Informazio gehiagorako, jar zaitez zure oinarritzko gizarte-zerbitzuarekin harremanetan.*



Nazioarteko adopzio-programa

Zer da?

Atzerriko herrialde batean haur bat adoptatzeko interesa duten familiei informazioa, prestakuntza eta laguntza eskaintzeko programa.

Nori zuzendua dago?

Nazioarteko adopzioan interesa duten familiei.

Info +

[Araba](#) | [Bizkaia](#) | [Gipuzkoa](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Arabako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila**
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- **Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila**
Administrazioaren eta Sustapen Sozialaren Zuzendaritza..
- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politika Saila**
Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.

Adopzioetarako Laguntza Zerbitzua

Zer da?

Haur bat adoptatzeko interesa duten familientzako informazioa, aholkularitza eta laguntza tekniko espezializatua eskaintzen duen zerbitzua. Familientzako arreta eta laguntza adopzioaren aurretik, bitartean eta ondoren eskaintzen da.

Nori zuzendua dago?

Adopzio-familiei edo adopzioan interesa duten familiei.

Info +

[Araba](#) | [Bizkaia](#) | [Gipuzkoa](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Arabako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila**
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- **Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila**
Administrazioaren eta Sustapen Sozialaren Zuzendaritza.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politika Saila**
Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.

Ukrainatik etorritako adingabeak harreran hartzeko gida

Zer da?

Ukrainatik etorritako haurren arreta eta harrerarako jarraibideak eskaintzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren Gida.

Nori zuzendua dago?

Familiei oro har.

Info +

[Hemen](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Bizkaia

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila**
Administrazioaren eta Sustapen Sozialaren Zuzendaritza.

Harremanetarako datuak	
Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	
Araba	945 181 818
Bizkaia	944 068 000
Gipuzkoa	943 112 111

Harremanetarako datuak	
Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	
Araba	945 181 818
Bizkaia	944 068 000
Gipuzkoa	943 112 111

*Informazio gehiagorako, jar zaitez zure oinarritzko gizarte-zerbitzuarekin harremanetan.

Harremanetarako datuak
ume-infancia@bizkaia.eus
*Informazio gehiagorako, jar zaitez zure oinarritzko gizarte-zerbitzuarekin harremanetan.

1.7. BESTE BALIABIDE BATZUK



1.7. BESTE BALIABIDE BATZUK

- **Familia ugariaren titulua**
- **Familia ugariaren txartela**
- **Gurasotasun positiborako programak**
- **Aukerak suspertzen: hezkuntza-arloko programa komunitarioa**

Familia ugariaren titulua

Zer da?

Foru Aldundiek igortzen duten titulua da eta familia bat "familia ugari" gisa aitortzen du. Titulu horrentzako jarraitzen diren irizpideak eta eskatzeko modua kontsulta ditzakezu zure Foru Aldundian.

Nori zuzendua dago?

Familia ugariak.

Info +

[Araba](#) | [Bizkaia](#) | [Gipuzkoa](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Arabako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila**
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- **Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila**
Administrazioaren eta Sustapen Sozialaren Zuzendaritza.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politika Saila**
Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.

Familia ugariaren txartela

Zer da?

Eusko Jaurlaritzak familia ugari gisa aitortutako familia bateko 5 urtetik gorako kideei ematen dien txartel indibidualak dira. Indibidualak, pertsonalak eta besterenezinak dira, eta Euskadin dute balioa. Txartela dokumentu egiaztagiria da, Familia Ugariaren Tituluari lotua, eta bere helburua familia horientzat dauden abantailen erabilera erraztea da. Familia Ugariaren Titulua Foru Aldundietan igortzen da.

Nori zuzendua dago?

Familia ugariak.

Info +

[Hemen](#)

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Eusko Jaurlaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Saila**
Familia eta Haurren Zuzendaritza.

Harremanetarako datuak	
Herritarrentzako Arreta Zerbitzua	
Araba	945 181 818
Bizkaia	944 068 000
Gipuzkoa	943 112 111

*Informazio gehiagorako, jar zaitez zure oinarritzko gizarte-zerbitzuarekin harremanetan.

Harremanetarako datuak	
familiasnumerosas@euskadi.es Zuzenean (012)	



Gurasotasun positiborako programak

Zer da?

Familiei haien trebetasunak, gaitasunak eta seme-alaben hazkunderako eta zaintzarako konpetentziak garatzen laguntzen dieten programak, zerbitzuak edo baliabideak. Haur eta nerabeen erabateko garapena eta ongizatea bermatzea da helburua.

Hauek dira programa horien adibide batzuk: Udal-webgunean Gurasotasun Positiboaren materialak zabaltzea, Gurasoen Eskolen Programa, Udal Haurtzaindegietan familientzako tailerrak, 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako online aholkularitza-programa, etab. Kontsultatu zure udalarekin.

Nori zuzendua dago?

Seme-alaba adingabeak dituzten familiei.

Baliabidearen jarduketa arloa:

Udalekoa

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Udalak:** jarri harremanetan zure udalarekin edo klikatu [HEMEN](#) zerbitzu edo programa mota hori eskaintzen duen kontsultatzeko.

Aukerak suspertzen: hezkuntza-arloko programa komunitarioa

Zer da?

Hainbat GGKEren bitartez ikasketak zailtzen dizkien egoera zaurgarrian dauden haurrei (ekonomikoak edo sozialak) eta haien familiei ikasteko laguntza informatiko eta hezitzailea eskaintzea.

Zerbitzu horrek, hainbat GGKEren bitartez, laguntza informatiko eta hezitzailea ematen die egoera zaurgarrian (ekonomikoak edo sozialak) dauden eta ikasketetan arreta emateko zailtasuna duten haurrei, bai eta haien familiei ere.

Nori zuzendua dago?

Eskola- eta familia-beharrak dituzten haur eta nerabeei.

Info +

Hemen

Baliabidearen jarduketa arloa:

Euskadi

Baliabidea eskaintzen duen erakundea:

- **Eusko Jaurlaritza, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Saila**
Familia eta Haurren Zuzendaritza.



Harremanetarako datuak

familia@euskadi.eus | [Zuzenean](#) (012) |

2

GAZTEAK DAUDEN FAMILIAK

Atal honetan, seme-alaba gazteak baldin badituzu edo gazteak (16 eta 35 urte bitartean) dauden familia bateko kide bazara interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuei, programei, ekipamenduei edo dirulaguntzei buruzko informazioa aurkituko duzu.

Galdera hauetakoren bat baduzu, atal hau interesgarria izan daiteke:

Goi mailako ikasketak egiteko bekak daude?

Non jakin dezaket ikasketak jakin batzuk zer unibertsitateetan dauden?

Eta Lanbide Heziketako prestakuntza-eskaintza?

Ba al dago nire familiako gazteek gaitasun eta trebetasun sozialak indartzeko laguntzak?

Non aurkitu ditzaket enplegarritasuna hobetzeko baliabideak?



2.1.

Ikasteko dirulaguntzak eta bekak



2.2.

Hezkuntza-sistema, zentroak eta beste prestakuntza batzuk



2.3.

Esperientzia esanguratsuak bizitzeko laguntzak, zerbitzuak eta programak



2.4.

Lana aurkitzeko aukera hobetzeko dirulaguntzak, zerbitzuak eta programak



2.5.

Beste baliabide batzuk



2.1. IKASTEKO DIRULAGUNTZAK ETA BEKAK

- **Euskaditik kanpo musikan, dantzan, antzerkian, arte plastikoetan eta ikus-entzunezkoetan formatzeko bekak**
- **Kooperante gazteentzako bekak**
- **Lankidetzarako Ikasiker bekak**
- **Gazteak auzolanean: Gipuzkoako gazteentzako bekak**
- **Eleaniztasuna: atzerrian hizkuntzak ikastea**
- **Hobariak UPV/EHUko goi-mailako hezkuntzako prezio publikoetan**

